

Europar Batasunean oposizioak egitea

Zure *prestakuntza* amaitzerakoan *oposizioak prestatzeko* asmoa baduzu, kontuan hartu Europak ere eremu honetan aukerak eskaintzen dituela.

Baldintzak:

- . Europar Batasuneko herrialde bateko hiritarra izatea
- . EBeko bi hizkuntza ezagutzea (horietako bat ingelesa, frantsesa edo alemana)
- . Deialdiak eskatzen duen prestakuntza izatea

EPSO Langileak hautatzeko Europar Bulegoa da eta EBean funtzionario izateko oposizioen prozesuaz arduratzen da.

Oposizioetan, gaitasun eta ezagutza profesional espezifikoek gain, ondorengo oinarriko gaitasunak ebaluatuko dira:

- Arazoak aztertzea eta ebaztea
- Komunikazioa
- Kalitate lana eta emaitzak
- Jabekuntza eta garapena
- Lehentasunak zehaztea eta antolatzea
- Erresistentzia
- jendearekin lan egitea

Izena ematea:

EPSO kontu bat ireki ondoren, informazio pertsonala eta profesionalarekin batera eskaera konfirmatu behar da. Beraiek hautaketa taldearekin kontaktuan jarriko dira eta orduan prozesu osoa hasiko da.

Oposizioetarako kategoriak:

- . **Administratzailea.** Unibertsitate titulua eskatzen da: ekonomistak, legelariak, ikerlariak...
- . **Hizkuntzalaria.** Unibertsitate titulua eskatzen da: itzultzaileak eta interpretariak.
- . **Laguntzailea.** Bigarren hezkuntzako titulua eskatzen da. Administrari laguntzailea, idazkariak, teknikariak...
- . **Profil bereziak.** Kasuaren araberako titulazioa. Zientzialariak, ikuskatzaileak...

Intereseko loturak:

EBean oposizioak egiteko bulegoa:

[EPSO. European Personnel Selection Office](#)

Europar lan bilaketa eta argibideak (oposizioak alde batera utzita):

[Lana Europan](#)

[Europa](#)